EUSKO JAURLARITZA — GOBIERNO VASCO

**ENPLEGU ETA GIZARTE GAIETAKO SAILA**
Gizarte Gaietako Sailburuordetza
*Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza*

**DEPARTAMENTO DE EMPLEO Y ASUNTOS SOCIALES**
Viceconsejería de Asuntos Sociales
*Dirección de Servicios Sociales*

# ADINEKOEN BATZORDE IRAUNKOR SEKTORIALA
# COMISIÓN PERMANENTE SECTORIAL DE PERSONAS MAYORES

## 2011-09-30ko OSOKO BILKURAREN AKTA

## ACTA DEL PLENO DE 30-09-2011

**DEIALDIA EGITEN DUENA**:

**Presidentea**: **Gemma Zabaleta Areta andrea**.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Sailburua.

**BERTARATUAK**:

**Gemma Zabaleta Areta andrea**.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren sailburua.

**Alfonso Gurpegui jauna**.- E. eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako sailburuordea.

**Iñaki Mugica jauna**.- Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako zuzendaria.

**Ángel Manero jauna.-** Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailaren Gizarte Zerbitzuetako Zuzendaritza.

**Elena Elosegui andrea.-** Osasun Saila.

**Ana Telleria andrea**.- Etxebizitza, Herri Lan eta Garraio Saila.

**José Antonio Martín jauna.-** Arabako Foru Aldundiko Gizarte Politikaren eta Gizarte Zerbitzuen Saila.

**José Manuel Odriozola jauna.-** Eusko Federpen (Euskadiko Pentsiodun eta Erretiratuen Probintzia Elkarteen Lurralde Federazioa).

**José Luis Elosua jauna**.- Nagusilan Adin Nagusikoen Giza Boluntariotza.

**José Ribiere jauna.-** Gipuzkoako Erretiratu eta Pentsiodunen Elkartea.

**Jose Ignacio del Pozo jauna**.- Lares Euskadi.

**Olatz Etxabe andrea**.- EAEko Gizarte Laneko Diplomatuen eta G. Laguntzaileen Elkargo Ofizialak.

**Begoña Frutos andrea**.- Euskadiko Psikologoen Elkargo Ofizialak

**CONVOCA**:

**Dña. Gemma Zabaleta Areta,** Consejera de Empleo y Asuntos Sociales.

**ASISTENTES**:

**Dña. Gemma Zabaleta Areta.-** Consejera de Empleo y Asuntos Sociales.

**D. Alfonso Gurpegui.**- Viceconsejero de Asuntos Sociales del Departamento de E. y Asuntos Sociales.

**D. Iñaki Múgica Flores.-** Director de Servicios Sociales del Departamento de E. y Asuntos Sociales

**D. Ángel Manero.-** Dirección de Servicios Sociales del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales.

**Dña. Elena Elosegui**.- Departamento de Sanidad.

**Dña. Ana Tellería**.- Departamento de Vivienda, Obras Públicas y Transportes.

**D. José Antonio Marín.-** Departamento de Política Social y Servicios Sociales de la Diputación Foral de Alava.

**D. José Manuel Odriozola**.- Eusko Federpen (Federación Territorial de Asoc. Provinciales de Pensionistas y Jubilados del País Vasco).

**D. José Luis Elosua.-** Nagusilan Voluntariado Social de Mayores.

**D. José Ribiere.-** Asociación Guipuzcoana de Jubilados y Pensionistas.

**D. Jose Ignacio del Pozo**.- Lares Euskadi.

**Dña. Olatz Etxabe.-** Colegios Ofic. de Diplomados en Trabajo Social y Asistentes Sociales de la CAPV.

**Dña. Begoña Frutos**.- Colegios Oficiales de Psicólogas/os de Euskadi.

**Virginia Lizarraga andrea**.- Bizitzen Fundazioa.

**Mª Isabel Perea andrea**.- Euskadiko Alzheimer Gaixoen Senideen Elkarteen Federazioa.

**Jaime García Moreno jn**.- Aholkularitza Teknikoa.

**GONBIDATUAK:**

**Mayte Sancho andrea**.- Ingema.

**BERTARATU GABEAK**:

**Arantza Elizondo andrea**.- Emakunde Emakumearen Euskal Erakundeko idazkari nagusia.

**Cándido Hernández jauna**.- Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren Hezkuntza Berriztatzeko zuzendaria.

**Ignacio Rodríguez jauna.**- Kultura Sailaren Gazteriako zuzendaria.

**Gipuzkoako** Foru Aldundiko Gizarte Politikako Departamentua.

**Bizkaiko** Foru Aldundiko Gizarte Ekintzako Departamentua.

**EUDELen ordezkariak.**

**Antonio González jauna.-** Las Cuatro Torres. Arabako Erretiratu, Pentsiodun eta Alargunen Probintzia-Elkartea.

**Sabin Ipiña jauna**.- Nagusiak Bizkaiko Jubilatu eta Pentsiodunen Elkartea.

**Begoña Pablos andrea**.- Euskadiko Sendagileen Kontseilua

**Lucía Linares andrea**.- Aieratu Euskal Herriko emakume alargunen elkarteen federazioa.

-------------

Bilkura 2011ko irailaren 30eko goizeko 9:30ean hasi zen Bilbon, honako gai-zerrenda honekin:

1. 2011ko ekainaren 30ean egindako aurreko ohiko bilkuraren akta onartzea.

2. Eztabaidarako dokumentua: "*Zahartzen direnen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen*": ekarpen-fasearen ondorengo egoera.

**Dña. Virginia Lizarraga.-** Fundación Bizitzen.

**Dña. Mª Isabel Perea.-** Federación de Asociaciones de Familiares de Enfermos de Alzheimer de Euskadi.

**D. Jaime García Moreno**.- Asesoría Técnica.

**PERSONAS INVITADAS:**

**Dña. Mayte Sancho.-** Ingema.

**AUSENTES**:

**Dña. Arantza Elizondo**.- Secretaria General de Emakunde/Instituto Vasco de la Mujer.

**D. Cándido Hernández.-** Director de Innovación Educativa del Departamento de Educación, Universidades e Investigación.

**D. Ignacio Rodríguez.-** Director de Juventud del Departamento de Cultura.

Departamento de Política Social de la **Diputación Foral de Gipuzkoa**.

Departamento de Acción Social de la **Diputación Foral de Bizkaia**.

**Representantes de EUDEL.**

**D. Antonio González.-** Las Cuatro Torres. Asoc. Prov. de Jubilados, Pensionistas y Viudas de Alava.

**D. Sabin Ipiña.-** Nagusiak Asociación de jubilados y pensionistas de Bizkaia.

**Dña. Begoña Pablos.-** Consejo de Médicos de Euskadi.

**Dña. Lucía Linares.-** Federación de Viudas Aieratu de Euskal Herria.

-------------

La sesión dió comienzo a las 9:30 h. de la mañana del 30 de septiembre de 2011, en Bilbao, con el siguiente orden del día:

1. Aprobación del acta de la sesión ordinaria anterior, celebrada el 30 de junio de 2011.

2. Documento para el debate: "*Cien propuestas para avanzar en el bienestar y buen trato de las personas que envejecen*": situación tras la fase de aportaciones.

3. Adinekoen eskubideen eta tratu onaren aldeko sentsibilizazio-kanpainari buruzko informazioa.

4. Galde-eskeak.

Enplegu eta Gizarte Gaietako Saileko sailburuorde Gemma Zabaletak, bertaratutako guztiei ongi etorria eman ondoren, Kontseiluaren bilkura hau egungo legegintzaldiaren esparruan eta gizarte-zerbitzuen arloan aurreratzeko testuinguruan kokatu du. Adierazi duenez, Sailetik nahi da egungo egoera zailean administratu eta kudeatu eta gainera, aurrerapenak bultzatu hurrengo legegintzaldietarako etorkizun-ikuspegiarekin eta hurrengo belaunaldien ikuspegiarekin.

Testuinguru horretan, gogorarazi du gaur egun erakundeen arteko lan handia egiten ari dela Gizarte Zerbitzuen Legea garatzeko; prozesu horretan ezin da azkarrago aurrera egin prozesua azkarragoa izatea egokiena bada ere, sistemaren iraunkortasun ekonomikoa ziurtatzea ezinbestekoa delako (horretarako beharrezkoa da erakundeen arteko akordioak ezartzea) eta prozesua garatzen ari den bitartean aldaketak gertatu direlako udal- eta foru-gobernuetan.

Jakinarazi du gaur egun badaukagula Legea garatzeko tresna garrantzitsuenak biltzen dituen zirriborroa, tresnak honako hauek izanik: Prestazio eta Zerbitzuen Zorroari buruzko Dekretua, plan estrategikoa, mapa eta memoria ekonomikoa; bestalde, gaineratu du abenduan, dokumentu horiei buruzko erakundeen arteko akordio bat lortu nahi dela 2012an gainerako eragileen ekarpenekin aberastu ahal izateko, izapideak egiteko eta ondoren onartzeko.

Adierazi duenez, Sailaren funtsezko lan-ildo bat (ildo horretan kokatzen da gaur ikusiko dugun dokumentua) gizarte-zerbitzuen eta zerbitzu soziosanitarioen berrikuntza bultzatzearen aldeko apustua da. Zahartze-prozesuaren erronkari dagokionez, ingurune komunitarioa zahartzen direnen premietara egokituta egoteko behar diren baliabideak abian jarri eta hobetu nahi dira. Adierazi duenez, oinarriak legegintzaldi honen amaierako jarri behar dira eta horretarako eskaini da dokumentu hau, herritarrek orokorrean, profesionalek eta gaian inplikaturiko eragileek eztabaida dezaten.

***1. puntua.*** **2011ko ekainaren 30ean egindako aurreko ohiko bilkuraren akta onartzea.**

Bertaratuek aho batez onartu dute akta.

3. Información sobre la campaña de sensibilización pro-derechos y buen trato para las personas mayores.

4. Ruegos y preguntas.

Dña. Gemma Zabaleta, Consejera del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, da la bienvenida a todas las personas asistentes y sitúa esta sesión de la Comisión en una contexto de avance en materia de servicios sociales en el marco de la legislatura actual. Señala que desde el Departamento se pretende no sólo administrar y gestionar en la dificil coyuntura actual, sino favorecer avances con visión de futuro para las siguientes legislaturas y con la perspectiva de las siguientes generaciones.

En tal contexto recuerda que actualmente se está desarrollando un trabajo intenso interinstitucionalmente con el fin de desarrollar la Ley de Servicios Sociales y en el que, aunque fuera deseable, no se puede avanzar más rápido porque es imprescindible asegurar la sostenibilidad económica del sistema y para ello la necesidad de establecer acuerdos interinstitucionales y porque durante el proceso se ha producido un cambio en gobiernos municipales y forales.

Informa que a día de hoy se cuenta con un borrador de los principales instrumentos de desarrollo de la Ley: Decreto de cartera de prestaciones y servicios, plan estratégico, mapa, y memoria económica y que se pretende que en diciembre se pueda llegar a un acuerdo interinstitucional sobre estos documentos para que, durante el 2012, se puedan realizar los trámites para su enriquecimiento por parte del resto de agentes y posterior aprobación.

Señala que una línea de trabajo clave del Departamento y en la que encaja el documento que vamos a ver hoy es la apuesta por el impulso de la innovación en servicios sociales y sociosanitarios. Ante el reto del envejecimiento se pretende mejorar y poner en marcha los recursos para que el entorno comunitario este adaptado a las necesidades de las personas que envejecen. Transmite que tenemos que sentar las bases en este final de legislatura y para ello se lanza este documento para el debate de población en general, profesionales y agentes implicados en la materia.

***Punto 1.*** **Aprobación del acta de la sesión ordinaria anterior, celebrada el 30 de junio de 2011.**

El acta es aprobada favorablemente y de forma unánime por las personas asistentes.

__2. puntua__. **Eztabaidarako dokumentua: "*Zahartzen diren pertsonen ongizatean eta tratu onean aurrera egiteko ehun proposamen*".**

Gizarte Gaietako sailburuorde Alfonso Gurpeguik azaldu du batzorde honek dokumentua lantzeko egindako lanaren ondoren, hiru hilabeteko epea irekitzen dela dokumentua aberasteko, horri loturiko profesionalekin eta eragileekin lan-saioak eginez eta Irekia gunearen, Nagusi azokaren, ad hoc lan-jardunaldien eta abarren bitartez.

Era berean, adierazi du Batzorde honen bilkuraren ondoren dokumentuaren hedapen-prozesuari ekingo zaiola, langileen ordezkari gisa Txema Odriozolaren parte-hartzea izango duen prentsaurreko batekin.

Alfonso Gurpeguik Mayte Sanchori eman dio hitza ekainean egindako batzordearen aurreko bilkuran dokumentuari erantsitako aldaketak azal ditzan.

Mayte Sancho de Ingema andreak jasotako ekarpenen ondoren egindako aldaketa guztien (bilkuran emandako txosten batean jasotzen dira) errepasoa egin du. Hona hemen aldaketa nagusiak:

- Aurkezpen zabalago bat, ohiko plangintza zergatik ez den egin azaltzen duena, erantsi da.
- Diagnostikoaren datuak eguneratu dira, Desgaitasunari, Autonomia Pertsonalari eta Mendetasun-egoerei buruzko 2008ko inkestaren Euskadirako ustiapen monografikoa erantsiz.
- Joerak eguneratu egin dira eta joera berriak txertatu, esaterako, "aldaketak lan- eta erretiro-ereduetan" eta "aldaketak astialdiaren erabileran".
- Dokumentuaren blokeak bere horretan utzi dira baina bertan jasotzen ziren neurri batzuk aldatu egin dira balizko bikoiztasunak saihesteko; beraz, neurri batzuk bateratu, beste batzuen testua aldatu eta zenbait neurri berri txertatu egin dira.

__3. puntua.__ **Adinekoen eskubideen eta tratu onaren aldeko sentsibilizazio-kanpainari buruzko informazioa.**

Alfonso Gurpegui jaunak Enplegu eta Gizarte Gaietako Sailetik urriaren erdialdean adinekoen eskubideen eta tratu onaren aldeko sentsibilizazio-kanpaina abian jarriko dela azaldu ondoren, Mayte Sanchori eman dio hitza kanpaina hori zein puntutan dagoen adieraz dezan.

__*Punto 2.*__ **Documento para el debate: "*Cien propuestas para avanzar en el bienestar y buen trato de las personas que envejecen*".**

D. Alfonso Gurpegui, Viceconsejero de A. Sociales, explica que, tras el trabajo realizado desde esta Comisión para la elaboración del documento, se inicia ahora un periodo de 3 meses de apertura para su enriquecimiento, a través de sesiones de trabajo con profesionales y agentes vinculados, a través de Irekia, la feria Nagusi, jornadas de trabajo ad hoc…

Tras la sesión de esta Comisión, se procederá al inicio de la difusión del documento mediante una rueda de prensa con la participación de Txema Odriozola como representante de la parte social.

D. Alfonso Gurpegui, da paso a Dña. Mayte Sancho para que explique las modificaciones incorporadas al documento tras la sesión anterior de la Comisión, celebrada en junio.

Dña Mayte Sancho, de Ingema, hace un repaso de todas las modificaciones introducidas tras las aportaciones recibidas y que quedan recogidas en un informe entregado en la sesión. Las principales modificaciones son:

- Se ha introducido una presentación más amplia que explica porqué no se ha realizado una planificación al uso.
- Se han actualizado los datos del diagnóstico con la incorporacion de la explotación monográfica para el País Vasco de la Encuesta sobre Discapacidad, Autonomía personal y situaciones de Dependencia (EDAD), 2008.
- Se han actualizado las tendencias y se han incorporado nuevas como los "Cambios en los patrones de trabajo y jubilación" y los "Cambios en el uso del tiempo libre".
- Se han mantenido los bloques del documento, pero se han modificado alguna medidas recogidas evitando posibles duplicidades y por tanto fusionando medidas, cambiando la redacción de algunas de ellas, e incorporando algunas medidas nuevas.

__*Punto 3.*__ **Información sobre la campaña de sensibilización pro-derechos y buen trato para las personas mayores**

D. Alfonso Gurpegui explica cómo desde el Departamento de Empleo y A. Sociales se va a lanzar una campaña, a mediados de octubre, de sensibilización pro-derechos y buen trato para las personas mayores, y da la palabra a Mayte Sancho para que explique en que momento se encuentra la misma.

Mayte Sancho de Ingema andreak adierazi du publizitate-agentzietako 5 proposamen jaso direla eta askotariko proposamenak izan direla. Estatuan egiten den horrelako ezaugarrietako lehen kanpaina dela kontuan hartuz, egokia ikusi da egoera larrienekiko salaketari dagokionez oso kanpaina gogorra ez egitea eta nagusiki tratu txar arinagoetan oinarritzea, esaterako axolagabetasunean, estereotipoetan edo adinekoak haur bihurtzeko joeran.

Dña Mayte Sancho, de Ingema, cuenta que se ha contado con 5 propuestas de agencias de publicidad y estas han sido muy variadas. Teniendo en cuenta que es la primera campaña de estas características que se hace en el Estado, se ha valorado conveniente no hacerla muy dura en cuanto a la denuncia de las situaciones más graves y centrarse en mayor medida en el maltrato más sutil como la indiferencia, los estereotipos o la infantilización de las personas mayores.

Kanpainaren zenbait euskarri aurkeztu ondoren, mezuei eta irudiei buruz bertaratuek egindako balorazioak jaso dira.

Se presentan algunos de los soportes de la campaña y se recogen valoraciones de las personas presentes sobre lo que les transmiten los mensajes e imágenes.

***4. puntua*. Galde-eskeak.**

***Punto 4.* Ruegos y preguntas.**

José Manuel Odriozola jaunak (Eusko Federpen) Etxean Ondo proiektuan biltzen diren 500 etxekoen unitateen identifikazioari buruz galdetu du.

D. José Manuel Odriozola, de Eusko Federpen, pregunta por la identificación de los 500 hogares dentro del proyecto Etxean Ondo.

Mayte Sancho de Ingema andreak azaldu du erabiltzaileen profilak definitzen ari direla eta 2 hilabetetan 6 hilabete iraungo duen esku-hartzeari ekingo zaiola.

Dña Mayte Sancho, de Ingema. señala que se están definiendo los perfiles de las personas usuarias con el Departamento de Sanidad y que en 2 meses se empezará con la intervención que durará 6 meses.

Enplegu eta Gizarte Gaietako sailburu Gemma Zabaletak argitu du esperientzia pilotuaren emaitzak 2012ko ekainean emateko ahalegina egingo dela.

Dña. Gemma Zabaleta, consejera del Departamento de Empleo y Asuntos Sociales, aclara que será para junio de 2012 cuando se tratará de devolver los resultados de la experiencia piloto.

Bestelako izapiderik gabe, 11:00etan bilkura amaitutzat eman da.

Sin más trámite, se da por finalizada la sesión a la 11:00 horas.

IDAZKARIA
SECRETARIA

PRESIDENTEAREN ONIRITZIA
VºBº LA PRESIDENTA